



Arartekoaren 2016R-1464-15 Ebazpena, 2016ko ekainaren 17koa. Horren bidez, Gasteizko Udaltzaingoari gomendatzen zaio trafiko-istripu bati buruzko txostena berrikus dezala, erreklamazio egileak haren zuzentasunari buruz planteatu dizkion zalantza guztiak argitu ditzala eta, beharrezkoa bada, dokumentu horren edukia berrikuspenaren emaitzari egokitu diezaiola.

Aurrekariak

1. XXX-k erakunde honi esku hartzeko eskatu zion, berak izan zuen zirkulazio-istripu batean Gasteizko Udaltzaingoak egin zuen txostena dela-eta. Istripua Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalearen eta Mexiko kalearen artean izan zen (XXX zenbakidun txostena). Erakunde honen esku hartzea eskatzeko arrazoia izan zen txostenaren edukia ez zettorrela bat gertatutakoarekin.

Ezadostasunaren arrazoi nagusia izan zen instrukzio-taldeak dokumentu horretan istripuaren balizko kausari buruz azaldu zuen hipotesia. Txostenean, izan ere, istripuan parte hartu zuen beste ibilgailuaren gidariaren bertsioa ontzat jo zuen. Txostenak hau dakar zehazki: *“Si bien las manifestaciones de los conductores fueron contradictorias al respecto de cómo se produjo el accidente, pudo ser más probable la versión aportada por el conductor del Vehículo ‘B’”*.

Hipotesia honako honetan oinarritzen zen: *“los daños presentados mostraron que la colisión no había sido por embestida, sino por roce entre los laterales de los vehículos”*. Sortutako kalteez txostenean egin zen azalpenaren arabera, interesdunaren ibilgailuari hauexek zegozkion: *“vértice trasero izquierdo, afectando a paso de rueda (rozadura con hendidura)”*; eta beste ibilgailuari, honako hauek: *“en vértice delantero derecho, afectando al lateral del paragolpes”*.

Erreklamazio egileak, ordea, adierazi du talka ez zela gertatu ibilgailuen alboak elkarrekin marruskatzeagatik; aitzitik, beste ibilgailuak aurrealdearekin bere ibilgailuaren ezkerreko aldea jo zuen. Hala azaldu ziren istripuaren lekura agertu ziren agenteei, istripua gertatu zenean bertan ez zeudenak.

Erreklamazio egileak eman zigun txostenaren kopiaren arabera, istripua izan zuen beste ibilgailuaren gidariak agenteei eman ziren bertsioa hau izan zen: *“que se encontraba detenido en la calle Beato Tomás de Zumárraga, ante el semáforo que regulaba la intersección con calle México. Que al ponerse el semáforo en ‘verde’, reanudó la marcha, girando hacia la izquierda, quedando de nuevo detenido por detrás de otro vehículo en la calle México, ante un semáforo que regulaba la circulación respecto de los peatones. Que se quedó con el vehículo ‘cruzado’, ocupando parcialmente el carril izquierdo de la calle hacía la que se dirigía, con la mayor parte de su vehículo ocupando el carril derecho, ya que ese era el carril por el que iba a continuar circulando. Que al ponerse el semáforo en ‘verde’, reanudó la marcha, momento en el que otro vehículo procedió a rebasarle por la derecha, produciéndose la colisión. Que no podía entender la maniobra realizada por este vehículo, ya que apenas disponía de espacio para rebasarle, y más teniendo en*





cuenta que era previsible su intención de querer ocupar el carril derecho de la calle hacía la que se dirigía, ya que tenía prácticamente todo su coche ocupando este carril”.

Dokumentu berberarekin bat etorritz, erreklamazio egileak agenteei hau azaldu zien: *“que se encontraba detenido en la calle México, ante el semáforo en fase ‘roja’, que regulaba la circulación en el cruce con calle Beato Tomás de Zumárraga. Que se encontraba posicionado por detrás de otros dos vehículos, en el carril derecho de los dos existentes para el mismo sentido. Que al ponerse el semáforo en ‘verde’, reanudaron la marcha, cuando al encontrarse en la mitad de la intersección, un vehículo que provenía desde su izquierda, desde calle Beato Tomás de Zumárraga, le colisionó en la parte trasera izquierda de su vehículo”.*

Txostenaren edukia istripuaren inguruabarrei buruz aipatu ditugun azalpenak ziren, eta instrukzio-taldeak dokumentu horretan finkatu zuen hipotesiaren justifikazioa. Dokumentu horretan ez zen agerrarazi esku hartu zuten agenteek eta instruktoreak ez zutela istripua ikusi gertatu zen unean.

Beste alde batetik, txostenean adierazi zen arren hipotesia instrukzio-taldeak finkatu zuela, dokumentuak aditzera ematen zuen agente bakar batek parte hartu zuela instrukzioan.

Interesdunaren ustez, istripuaren unean ibilgailuei egin zizkion argazkiek eta istripua jazo zen bidegurutzea arautzen duten semaforoek frogatzen dute istripua berak adierazitako moduan gertatu zela eta hori bateraezina zela txostenean finkatu zen hipotesiarekin.

Adierazi zigunez, argazkiek erakusten zuten bere ibilgailuak jasandako kalteak atzeko eta ezkerreko alboan zeudela. Beste ibilgailuarenak, ordea, aurreko kolpe-leungailuan zeuden, eskuineko argiaren azpian.

Kexarekin bat etorritz, gurutzea arautzen zuten semaforoaren funtzionamendua hau zen: a) beste ibilgailua abiatu zen semaforoa (Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalekoa) berde jarri zenean, Mexiko kaleko semaforoa (ibilgailu horren gidaria horren aurrean gelditu zela dio) berde zegoen, eta erreklamazio egilea zegoen semaforoa, kale berean dagoena, gorri zegoen; b) azken semaforo hori gorri zegoen eta lehenengoa berde zegoen; c) Mexiko kaleko semaforoa, zeinaren aurrean beste ibilgailuaren gidaria (bere esanetan) geldirik zegoen, laranja jarri zen bera zetorren Tomas Zumarraga Dohatsuaren kaleko semaforoa berde jarri eta gero; eta d) Mexiko kaleko semaforoa, zeinetan interesduna geldituta zegoen, berde jarri zen beste ibilgailua abiatu zen semaforoa berde jarri eta hogeita hamar segundora.

Kexa jarri zuen pertsonak, era berean, adierazi zuen ezinezkoa zela, semaforoaren funtzionamendua aztertuta, bera zegoen semaforoan aurretik zeuzkan bi ibilgailuak istripuko beste ibilgailua zegoen erreitik igaro izana semaforo hori berde jarri zenean, azken ibilgailu hori erreian baldin bazegoen.





Azaldu zuen, azkenik, beste ibilgailua eskuineko erreian bazegoen eta bera aurreratzen saiatu balitz kolpea ibilgailuaren alboan izan beharko litzatekeela, baina ez aurrealdean.

Beste alde batetik, interesdunak adierazi zuen ez zegoela argi, agenteek txostenean egin zuten deskribapenaren arabera, ibilgailuen zein zati suertatu ziren kalteturik. Zehaztu zuen bi ibilgailuen kalteak kokatzeko agenteek erabili zuten “*vértice*” esapidea ez zela batere argia, ezta “*lateral del paragolpes*” esapidea ere, beste ibilgailuaren kalteak deskribatzeko erabili zutena. Esaera horiek ez omen datoz bat berak aurkeztutako argazkietan ageri diren kalteekin.

Erreklamazio egileak adierazi zigun Udaltzaingoari esan ziola ez zegoela ados txostenarekin, azaldu diren arrazoiengatik, eta txostenaren edukia aldatzeko eskatu ziola, istripuaren balizko kausari dagokionez.

Esan zigunez, berak egindako eskaeraren ondorioz, esku hartu zuten agenteek eta hasierako txostenean instruktore gisa ageri zenak argipen-txosten bat egin zuten (XXX zenbakidun txostena).

Bigarren txosten horretan (kexagileak kopia bat bidali zigun), esku hartu zuten udaltzainak hasierako txostenean adierazitakoa berretsi baino ez zuten egin, eta hauxe adierazi zuten: “*Los daños fueron ocasionados por roce lateral entre los vehículos, no por impacto por embestida*”, baina ez zuten bestelako justifikaziorik eman eta ez zituzten argitu interesdunak hipotesi horren zuzentasunaz eta kalteen deskribapenaz beraz azaldu zituen zalantzak. Hala ere, beraien esanean, txostenean transkribatutakoa: “*fue lo manifestado por las partes implicadas en el lugar*”.

Instrukzio-taldeak, bestalde, txostenean agerrarazi zuen “la regulación semafórica y las fases de movimiento de la intersección México-Beato Tomás de Zumárraga-Pedro Asua”-ri buruzko informazioa eskatu ziola semaforoek arduratzen den enpresari, eta dokumentu horretan jaso zuen enpresak emandako informazioa. Baina ez zuen informazio hori interesdunak planteatu zuen ikuspegitik baloratu, eta ez zuen justifikatu gurutzea arautzen duten semaforoek funtzionamenduaren eta argazkiek erakusten zituzten kalteen bateragarritasuna istripuaren balizko kausari buruzko hasierako txostenean ezarritako hipotesiarekin, kexan hori izanik zalantzatan jartzen zena.

Txostenaren arabera enpresa horrek eman zuen informazioak, antza denez, interesdunak adierazitako datuen mamia berresten zuen. Eta datu horietan oinarritu zen interesduna, aditzera emateko finkatutako hipotesia bateraezina zela semaforoek funtzionamenduarekin. Bazeuden zenbait ezberdintasun, ordea, adibidez, ezbeharrean parte hartu zuen beste ibilgailua abiatu zen semaforoak aldi berean berde zeuden denbora, zeinaren aurrean gidari hori gelditu omen zen, bere hitzetan. Txostenak adierazi zuen denbora hori hamabost segundo zela, baina, adierazi dugun bezala, interesdunak dio hamar segundo direla. Badaude ezadostasunak ere semaforoetako lehena berde eta bigarrena (zeinetan erreklamazio egilearen ibilgailua geldirik zegoen) gorri zeuden denborari dagokionez:





erreklamazio egilearen arabera, hogeita hamar segundo ziren, eta txostenaren arabera, ordea, berrogei segundo. Txostenak, gainera, adierazi zuen beste ibilgailua geratu zen semaforoa laranja zegoela 31 segundotan eta horren ostean berriro berde jartzen zela.

Instrukzio-taldeak txostenean errepikatu zuen azaldutako kalteen arabera talka ez zela izan bata bestearen kontra jotzeagatik, baizik eta ibilgailuek elkarren alboak marruskatzeagatik, baina ez zuten hori justifikatu, erreklamazio egileak gauzak hala gertatu zirela zalantzatan jartzeko azaldu zituen gogoetak kontuan izanik. Era berean, azaldu zuen hasierako txostenean ez zela aipatu erreklamazio egilea geratuta zegoen semaforoan bere aurrean zeuden bi ibilgailuek hartutako norabidea, alderdiek ez zutelako horren berri eman istripuaren unean. Aukera bi zeuden: gurutzean eskuinera joatea edo aurrera segitzea, istripuan zerikusia izan zuen beste ibilgailua zegoen lekurantz.

Txostenak hau dakar, bukatzeko: "Los policías locales realizan la instrucción de las actuaciones en base a sus conocimientos y a la valoración de las circunstancias que, a su entender, concurrieron para que se produjera el accidente o pudieron influir en las consecuencias del mismo. Sin duda, sobre cada caso pueden existir otras interpretaciones diferentes o en desacuerdo, en todo o en parte, con la policial. Las partes afectadas disconformes con las conclusiones policiales, y respaldadas o no por sus aseguradoras, por informes de peritos y cuantos medios de prueba crean oportunos pueden acudir a la Administración de Justicia para reclamar lo que estimen les corresponde en derecho. En esta Policía Local no se realizarán otras actuaciones en relación al accidente, quedando a disposición de los Tribunales de Justicia que puedan entender sobre la responsabilidad en el mismo, a los que se les prestará la colaboración que soliciten".

Erreklamazio egilea kexatu egin zen, txosten horrek ez zielako erantzunik eman berak azaldutako kontuei eta ez zuelako azaltzen instrukzio-taldeak zergatik mantentzen zuen oraindik ere kalteak ibilgailuek alboetatik elkar jotzean sortu zirela, nahiz eta berak kalteei buruz aurkeztutako argazkiek, bere ustez, eta semaforoen funtzionamenduak hipotesi hori gezurtatzen zuten. Kexatu egin zen, bestalde, hasierako txostenean ezbeharraren balizko kausari buruz adierazi zena ez zelako aldatu.

2. Kexa izapidetzeko onartu eta aztertu ondoren, erakunde honek Gasteizko Udalarengana jo zuen, planteatutako auzien berri emateko.

Era berean, eskatu genion ze kalte izan zituen kontuan Udaltzaingoak adierazteko talka alboko marruskaduren ondorioz gertatu zela eta zergatik uste zuen polizia-kidego horrek erreklamazio egileak aurkeztutako argazkiekin ere hasieran istripuaren kausari buruz ezarritako hipotesiak mantendu ahal zirela.

Gure eskaerari erantzunez, udalak txosten berri bat eman zigun. Istripuaren hasierako txostenean instruktore gisa ageri zen agente berak egin zuen (eta, lehen esan dugunez, berak egin zuen argipenen txostena, esku hartu zuten agenteekin





batera). Era berean, istripuaren hasierako txostena, argipenen txostena eta erreklamazio egileak hasierako txostena berrikusteko egin zuen eskaera eman zizkigun.

Agente instruktoreak kexari buruzko txostenean bakarrik esan zuen hasierako txostenean mantendutako hipotesia finkatzeko, *“se tuvieron en cuenta los daños de ambos vehículos según constan en el informe inicial y las fotografías aportadas”*. Eta hasierako txostenean kalte horietan oinarrituta egin zuen balorazioa justifikatu zuen, zeinetan, *“en el caso de la embestida los del vehículo ‘A’ hubieran resultado con un hundimiento mayor por penetración del vértice del ‘B’ y los de éste hubieran sido de mayor entidad”* (gogora ekarri nahi dugu A ibilgailua erreklamazio egilearena dela eta B ibilgailua ezbeharrean parte hartu zuen beste ibilgailua dela). Ez zuen argitu, ordea, zeintzuk diren kontuan izandako kalteak, txostenekoak ala argazkietakoak, guk eskatu bezala, ikusten baikeuen ez zetozeela bat erabat.

Txostenak ez zuen azalpen gehiagorik eman interesdunak planteatutako auziei buruz, eta ez zuen iritzirik ematen haren kexaren oinarri nagusia zen kontuari buruz: txostenaren arabera istripuaren kausa probablea omen zen hipotesia eta semaforoaren funtzionamendua eta ezbeharrean kaltetu ziren ibilgailu-zatiak ez datozela bat, berak aurkeztutako argazkien arabera.

Bestalde, ez zuen argitu nola den posible ezbeharra hipotesian azaldutako moduan gertatu izana, ibilgailuek jasan zituzten kalteen kokapena ikusita, argazkietan ageri zenez, eta semaforoaren funtzionamendua kontuan izanik.

Finean, agente instruktoreak txostenean ez zuen azaldu zertan oinarritzen den aditzera emateko ezbeharra erreklamazio egileak azaldutako moduan gertatu balitz bere ibilgailua mailatuago egongo litzatekeela eta beste ibilgailuaren kalteak handiagoak izango liratekeela. Balorazio hori, bestalde, ezin liteke ondorioztatu guri bidalitako dokumentazioan ageri ziren datuetatik.

Beste alde batetik, agenteak bere txostenean ez zuen zalantzatan jartzen ibilgailuaren kalteak erreklamazio egileak adierazitako aldean jazo zirenik, hasierako txostena berrikusteko eskabidea sostengatzeko erreklamazio egileak aurkeztu zituen argazkiek erakusten omen zuten.

Azkenik txostenak hau adierazten zuen: *“Las conclusiones policiales en los accidentes de circulación son elaboradas con imparcialidad por los policías de la Unidad de Atestados y Control de Tráfico, en base al análisis con sus conocimientos y experiencia de la información obtenida en el transcurso de la investigación, en relación a la normativa de tráfico y seguridad vial”*, eta argipen txostenean beste interpretazio batzuk egiteko aukerei buruz eta, ezadostasunik egonez gero, bide judizialera jotzeko aukeraz egindako gogoetak errepikatzen zituen (arestian transkribatu ditugunak).





Txostenean, talka gertatu ahal izan zen moduaren inguruko irudikatze grafikoa egin zen, gutxi gorabehera, istripuaren hasierako txostenean defendatzen zen hipotesiaren arabera. Irudian, talkaren unean ezbeharrean parte hartu zuen beste ibilgailua galtzadaren ezkerreko erreian gurutzatuta ageri zen, aurreko eta eskuineko aldea (erreklamazio egilearen ibilgailuarekin kontaktuan zegoena) eskuineko erreian zeukala.

Irudi hori ez zettorren bat, ordea, istripuaren hasierako txostenaren arabera beste ibilgailuaren gidariak talka gertatu zenean zegoen lekuari buruz egin omen zuen deskribapenarekin. Horren arabera (gogora ekarri behar dugu), bere ibilgailua istripuaren unean eskuineko erreia okupatzen ari zen, ia-ia guztiz, zati bat ezkerreko erreian edukita, eta ez ezkerreko erreia okupatzen aurreko eta eskuineko aldea eskuineko erreian edukita, irudian aditzera eman denez.

Irudiak, ordea, antz handiagoa zeukan erreklamazio egileak gertakariez eman zuen azalpenarekin.

Txostenak ez zuen azaldu nola geratu ahal izan zen geldirik galtzadan istripua izan zuen beste ibilgailua, baldin eta, argipenen txostenean azaldu zenez, abiatu zen semaforoa (Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalean) eta, gidariaren bertsioaren arabera, istripua gertatu zen lekuan geldiarazi zion semaforoa sinkronizatuta bazeuden hamabost segundoz biak berde egoteko, lehenengoa berde jartzen zen unetik aurrera, eta hamabost segundo horiek amaitutakoan ibilgailua gelditu zen semaforoa laranja jartzen bazen eta hogeita hamaika segundo ematen bazituen fase horretan. Ez zuen azaltzen, bestalde, ibilgailua zergatik zegoen gurutzatuta, zegokion zirkulazio erreian egon beharrean. Gure iritzian, ibilgailu bat aurrean egote hutsa ez zen, beste argipenik ezean, egoera horren azalpen egoki bat.

Informazio horrek, bestalde, ez zuen argitu zergatik, hasierako txostenak zekarren hipotesian, talkak interesdunaren ibilgailuaren atzeko eta ezkerreko aldean kaltea egin zezakeen aldez aurretik aurreko aldean marruskadura egin gabe. Izan ere, hipotesiaren logikan bazirudien zona hori izan behar zela beste ibilgailuaren aurka talka egin zuen lehenengoa.

Balorazio hori bidali genion udalari. Horretan oinarrituta, adierazi genion gure ustez poliziaren arduradunek istripuaren hasierako txostenaren berrikuspena egin behar zutela, sortutako zalantza guztiak argitzeko eta, beharrezkoa balitz, dokumentu horren edukia berrikuspenaren emaitzari egokitu, eta hasierako txostenak kalteak deskribatzeko erabili zituen terminoak argitu behar zirela, termino horiek ez omen zetozelako bat guztiz erreklamazio egileak txostena berrikusteko eskabidea justifikatzeko aurkeztu zituen argazkietan ageri ziren kalteekin, lehen adierazi dugunez.

Eskabide berri hartan, modu berean, udalari adierazi genion instrukzioan parte hartu zuten agenteak ez ziren instantzia batek berrikusi eta baloratu behar zuela istripuari buruzko hasierako txostenak istripuaren balizko kausari buruz ezarri zuen hipotesia berrikusi eta baloratu behar zuena. Bestalde, adierazi genuen beharrezkoa zela





berrikuspenean kontuan izatea guk azaldutako gogoetak eta interesdunak bere eskaerari emandako arrazoinamenduak Gogora ekarri genuen, modu berean, trafiko istripuei buruzko polizia-txostenei balizko erantzukizunen froga gisa ematen zaien garrantzia, baita dokumentu horiek ahalik eta arreta handienarekin bete beharra eta dena delako jarduketa ahalik eta zehatzen adierazteko premia ere, hurrengo atalean, gogoetenean, azalduko dugun moduan. Azkenik, txostenaren polizia-arduradunek egindako berrikuspenaren berri emateko eskatu genion.

1. Bigarren eskaera horri erantzunez, udalak Atestatuen eta Trafiko Kontrolaren Atalaren arduraduna den ofizialordearen txostena bidali zigun. Txostenak hau zekarren, laburbilduta: a) aipatutako unitatea da trafiko istripuen ikerketa eta dokumentazioa dagozkion unitatea; b) unitate horretako instruktoreak dira ondorioak egiten dituztenak eta *"nunca se efectúan otras distintas dentro de la propia Policía Local"*; c) trafiko istripuei buruzko txostenek ez dute *"carácter de resoluciones que obliguen a las partes implicadas o les limiten o condicionen las posibilidades de aportar otros medios de prueba, o acudir a las instancias a que haya lugar en derecho para resolver cualquier cuestión derivada de los accidentes"*; d) istripuei buruz egiten diren eta epaitegira bidaltzen ez diren txostenen berrikuspenari buruz Udaltzaingoak daukan irizpidea da instrukzio-taldeak xehatu dezala txostena, behin bakarrik; e) irizpide horren arabera, argipenen bigarren txosten horretan, kexaren xedea den istripuari buruz egin zen txosten xeheagoan sartu ziren gogoeta orokorrak jaso behar dira, instrukzioa egiteko moduari buruz, beste interpretazio batzuk egiteko aukerei buruz eta bide judizialera jotzeko aukerari buruz, eta istripuaren inguruan jarduketa gehiago ez egiteari buruz, justizia-epaitegiek eskatu ahal dioten laguntza izan ezik; e) ez da egokia ez zuhurra Udaltzaingoak egin dezala txostenaren berrikuspena; gainera, arestian aipatutako irizpidearen kontrakoa izango litzateke hori; f) ez da egokia istripuan esku hartu zuten eta hura instruitu zuten agenteak ez diren agente batzuk izatea berrikuspena egiten dutenak, *"no hay reconocidos policías que puedan interpretar un accidente de tráfico con un criterio de superior categoría o de prevalencia sobre el de otros"* dela-eta; eta g) trafiko istripuei buruzko polizia-txostenetan egiten den edozein berrikuspenek, aldeetako batek eskatuta egiten bada eta berrikuspenak txostenaren edukia aldarazi ahal badu, zerikusia duten beste alderdiak kontuan izan beharko luke.

Bestalde, txostena egin zuen ofizialordea ados agertu zen trafiko istripuei buruzko polizia-txostenen garrantziari buruz eta txosten horietan gertatutakoa zehatz-mehatz agerraraztearen garrantziaz egin genituen gogoetekin. Ondokoa adierazi zuen: *"Coincidimos totalmente con sus recomendaciones (...) y tomamos buena nota para no dejarlas en el olvido y continuar dirigiendo la actividad policial en el sentido recomendado procurando mejorar en la medida de lo posible, a pesar de ser conscientes de que en algunos casos lamentaremos que los resultados no sean mejores y en otros haya errores, disconformidades u otras disfunciones"*.

Informazio berriak ez zituen argitu erakunde honek egindako galderak, ezta erreklamazio egileak egindakoak ere. Ez zituen aztertu, eta ez zuen justifikatu kexaren xedea den txostenaren zuzentasuna auzitan jarritako alderdietan.





Gogoetak

1. Arartekoak askotan azpimarratu du poliziaren dokumentuak eta erregistroak ahalik eta arreta handienarekin bete behar direla, eta ahalik eta fideltasun eta zehaztasun handienaz islatu behar dituztela jardueraren inguruko xehetasunak.

Erakunde honek adierazi du, era berean, txosten poliziala egin duten udaltzainek trafikoko istripua ikusi ez badute, idatziz jaso behar da udaltzainek ez dutela istripua ikusi, behar beste justifikatu behar dela istripua gertatzeko arrazoia gainean ezarritako hipotesia, hipotesia dela adierazi behar dela, udaltzainek hipotesia egiteko kontuan hartu dituzten elementuak zehaztu behar direla eta elementu horietatik egin den baloraziora iristeko arrazoiak azaldu behar direla.

Arartekoaren ikuspuntutik, funtsezkoa da txostenek goian adierazitako zehaztapenak jasotzea, bai eragindakoei, bai txostenaren beste hartzaile posible batzuek zehatz eduki dezaten jazotakoaren berri. Era berean, funtsezkoa da istripuaren ikerketatik abiatuta udaltzainek egin duten hipotesiaren motibazioa ere jasotzea txosten horiek.

Erakunde honetan uste dugu eginkizun horretan ezin dela bazter utzi ibilgailuen aseguru konpainiek eta organo judizialek beraiek dokumentu horiei ematen dieten garrantzia, erantzukizun posibleen froga gisa erabiltzen dituzte-eta.

Kexaren xedea den polizia-txostena, aitzitik, ez zen egin aipatutako pautei jarraiki. Aurrekarietan erakutsi denez, dokumentu horretan ez zen agerrarazi esku hartu zuten agenteek ez zutela istripua gertatzen ikusi eta instruktore gisa ageri den agenteak ere ez zuela ikusi. Gainera, instrukzio-taldeak ez zuen behar bezainbeste motibatu istripuaren balizko kausari buruz ezarri zuen hipotesia, ez baitzuen azaldu hipotesi hori formulatzeko aintzat hartu zituen elementuek zergatik eginarazi zioten egin zuen balorazio hori.

Aurrekarietan, era berean, agerrarazi da instrukzio-taldeak istripuaren balizko kausari buruz egin zuen balorazioari buruz txostenak dakarren motibazio bakarra ibilgailuek izandako kalteena dela, dokumentuan bertan dagoen deskribapenaren arabera, baina ez dute azaldu kalte horietan oinarrituta nola egin zuten hipotesia.

Bestalde, lehenago ere esan dugunez, deskribapen hori ez omen dator bat interesdunak aurkeztu zituen argazkietan ageri diren kalteekin; horregatik, are nabarmenagoa da motibazio ezaren arazoa.

Gaineratu behar dugu udalak ez duela zalantzatan jarri kalteak erreklamazio egileak aipatu dituen ibilgailu-ataletan gertatu zirenik, aipatutako argazkietan oinarrituta, nahiz eta kalte horiek, arestian esan dugunez, ez omen datozen txostenean deskribatzen direnekin, eta txostenean aipatzen direnak izan arren dokumentu





horretan istripuaren balizko kausa ondorioztatzeko ezarri zen hipotesiaren motibazio bakarra.

Aurrekarietan azaldu da, era berean, udala bat datorrela erakunde honek polizia-txostenak egiteari buruz dauzkan jarraibideekin, lehen aipatu ditugunak. Horrek aldeko iritzia merezi du gure ustez.

Zehaztu behar dugu, ordea, administrazioak etorkizunean jarraibide horiek betetzen direla bermatzeko beharrezkoak diren mekanismoak artikulatu ahal dituen arren, kexaren ikuspegitik garrantzia duen bakarra dela polizia-txosten honek ez zituela jarraibideok bete eta jarduteko modu hori zuzendu egin beharko litzatekeela.

Arrazoi horregatik, erakunde honen ustez Udaltzaingoak txostena berrikusi beharko luke, haren edukia pauta horiei egokitzeko.

2. Arartekoari dagokio herritarren eskubideen aurka joan daitezkeen jokabideei aurrea hartzea, eta, horri dagokionez, erakunde honek hainbat gomendio eman dizkie euskal administrazio publikoetako polizi kidegoei. Urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrak, "Poliziaren jarduera eta praktiketako berme sistemari buruzkoa", proposamen horietako batzuk jasotzen ditu.

Gomendioan jasotzen denez, poliziaren arduradunek ikerketako barne prozedurari hasiera eman behar diote, polizia-agenteren batek ustez oker jardun duela jakinez gero, gertatukoa ikertu, jarduera hori bide egokitik joan ote zen egiaztatu eta, hala badagokio, bidezko neurriak hartzeko. Era berean, adierazten da ikerketak inpartziala izan behar duela eta haren edukiak egokia eta nahikoa izan behar duela gertakariak argitzeko (II.1.1 atala).

Gomendioak edozein polizia-jardun okerri eragiten dio, trafiko istripuei buruzko polizia-txostenak barne, adibidez kexa honen xedea dena.

Kexa bat gertatu denean txostena berrikusten duten agenteak txostena egin duten agente berberak izatea justifikatzeko udalak azaldu dituen gogoetak ikusita, aurrekarietan laburbildu ditugunak, zehaztu behar dugu inpartzialtasunaren exijentziak baztertu egiten duela kexa dagokien agenteak kexaren ikerketa egiten duten agenteak izateko posibilitate hutsa.

Udalaren informaziotik, aurrekarietan azaldutako terminoetan, ondorioztatu dugu, ordea, Udaltzaingoko arduradunek ez dutela ikertu kexaren xedea den jarduketa, esku hartu duten agenteek eta instruktoreak istripuari buruz egin zuten txostena gai eztabaidatuetan okerra zela adierazteko erreklamazio egileak aipatu dituen elementuak kontuan izanik.

Arartekoak uste du hala egin beharko luketela, gomendioan azaldutako irizpideak betetz, eta era berean erreklamazio egileak txostenaren berrikuspena eskatzeko azaldu dituen zantzu guztiak egiaztatu beharko lituzketela, zantzu horiek argitu eta, beharrezkoa bada, dokumentu horren edukia ikerketaren emaitzari egokitu.





3. Urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean, Arartekoak arreta deitu zuen poliziaren atestatu eta txostenetan kontrol mekanismoak ezarri beharrari buruz, dokumentu horien edukiak gertatutakoaren errealitatea zehatz-mehatz isla dezan (II.2.3 atala).

Erakunde honen ustez, kexan horrelako agiraka bat dago esku hartu zuten agenteek ibilgailuek jasandako kalteei buruz egin zuten deskribapena dela-eta. Adierazi denez, aipatutako deskribapena ez omen dator bat interesdunak hasierako txostena berrikusteko eskatzeko aurkeztu zituen argazkietan ageri diren kalteekin, kontuan izanik Espainiako Hizkuntza Akademiaren arabera "vértice" hitzaren definizioa, gure ustez kasuari hoberen egokitzen zaizkion adieretan, "punto en que concurren los dos lados de un ángulo" edo "tres o más planos" dela. Argazkien arabera, ordea, interesdunaren ibilgailuak jasan zituen kalteak atzeko ezkerreko alboan leudeke, eta beste ibilgailuaren kalteak aurreko kolpe-leungailuan, eskuineko argiaren azpian.

Beraz, Arartekoak uste du poliziaren arduradunek poliziaren jarduera ikuspuntu hori ere aintzat hartuta aztertu beharko luketela.

Zehazki, ibilgailuek jasan zituzten kalteei buruz txostenean egiten den deskribapena berrikusi beharko lukete, gertatutakoaren errealitateari egokitzeko, baldin eta, adierazi dugun guztitik ondorioztatzen denez, udalak ez badu auzitan jartzen kalteak interesdunak aipatutakoak izan zirela eta, berriro diogu, ez dirudi kalte horiek txostenean azaldutakoarekin bat datozenik.

Erakunde honen ustez, gainera, zehaztu beharko litzateke zein agente izan ziren instrukzio-taldeko kide, edo bestela taldearen aipamena kendu beharko litzateke, baldin eta instrukzioa agente bakar batek egin bazuen.

4. Urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean, Arartekoak adierazi zuen antolamendu juridikoak diskrezionaltasun-tarte handia ematen diela polizia-funtzionarioei euren funtzioak betetzeko, eta nabarmendu du diskrezionaltasun-tarte horrek ezin duela inola ere esku hartze arbitrarioik edo funtsik gabeko esku hartzerik sorrarazi (II. atala).

Motibazioa berme bat da, ziurtatzen duena administrazioak ez duela modu arbitrarioan jokatu, eta dena delako jarduketa behar bezala kontrolatzea ahalbidetzen du.

Auzitegi Gorenak ondokoa esan du gaiaz: *"El deber de la Administración de motivar sus decisiones es consecuencia de los principios de seguridad jurídica y de interdicción de la arbitrariedad de los poderes públicos, que se garantizan en el artículo 9.3 de la Constitución; y puede considerarse como una exigencia constitucional que se deriva del artículo 103, al consagrar el principio de legalidad de la actuación administrativa"* (urriaren 15eko 5190/2010 Epaia, seigarren zuzenbide-oinarria, eta maiatzaren 3ko 2486/2011 Epaia, bigarren zuzenbide-





oinarria, maiatzaren 23ko 3275/2005 Epaian azaldutako doktrina erreproduzitzen dutenak).

Aipatutako epaietan, auzitegiak ondokoa azaldu du, era berean: *“El deber de motivación de las Administraciones Públicas se engarza en el derecho de los ciudadanos a una buen Administración, que es consustancial a las tradiciones constitucionales comunes de los Estados Miembros de la Unión Europea, que ha logrado su refrendo normativo como derecho fundamental en el artículo 41 de la Carta de Derechos Fundamentales de la Unión Europea, proclamada por el Consejo de Niza de 8/10 de diciembre de 2000”.*

Andaluziako Justiziako Auzitegi Nagusiak, bestalde, motibazioaren garrantzia nabarmendu du, ondokoak aipatuz: *“El poder administrativo de un Estado de Derecho es siempre, y más todavía el poder discrecional, un poder obligado a dar cuenta de su efectivo servicio a la función para la que fue creado, a justificarse en su ejercicio y a justificar también su conformidad a la Ley y al Derecho, a los que está expresa y plenamente sometido por la Norma Fundamental y en esta línea, «la motivación de la decisión comienza, pues, por marcar la diferencia entre lo discrecional y lo arbitrario y ello porque, si no hay motivación que la sostenga, el único apoyo de la decisión será la sola e insuficiente voluntad del órgano competente»”* (552/2000 Epaia, apirilaren 24koa, Granadako administrazioarekiko auzien salarena, Sekzio Bakarra, laugarren zuzenbide-oinarria).

Azaldutakoarekin bat etorritz, erakunde honek uste du Udaltzaingoak trafiko istripu bati buruz egiten dituen txostenetan istripuaren balizko kausari buruz egiten duen balorazio oro, oso teknikoa izan arren eta agenteen jakintzan eta eskarmentuan oinarrituta egon arren, beti ondo motibatu behar dela.

Ikuspegi horretatik, Arartekoaren ustez, ez da onargarria polizia-kidego horrek txostenetan azaltzen duen balorazioa, kasu honetan gertatu denez, behar bezala justifikatuta ez egotea eta balorazio horrek ez argitzea zerikusia duten aldeetako batek gaiaz dauzkan zalantzak, funtsa baitute, eta ez justifikatzea dokumentu horien zuzentasuna, auzitan jarri diren alderdietan. Ez da onargarria, modu berean, kexaren xedea den txostena justifikatze aldera udalak erakunde honi eskainitako azalpenak zalantza-elementu berriak sartzea txostenaren zuzentasunari buruz, eta elementu horiek behar bezala argitu gabe egotea, nahiz eta beren-beregi argitzeko eskatu den.

5. Aurreko arrazoinamenduetan oinarrituta, Arartekoak uste du Udaltzaingolari dagokiola kexaren xedea den polizia-txostenaren edukiaren zuzentasuna frogatzea, eztabaidatutako alderdietan, eta interesdunak gaiaz aipatu dituen zalantza guztiak argitzea. Gainera, egin ditugun analisitik ondorioztatzen zalantzak argitu behar dira, aurrekarietan azaldu bezala.

Erakunde honen ustetan, horretarako, ondoko hauek modu arrazoituan azaldu behar dira:





a) Txostenean istripuaren balizko kausari buruz egin zen hipotesia eta semaforoaren funtzionamendua eta ibilgailuek pairatutako kalteak bateragarri izatea, aurrekarietan horri buruz azaldutakoa kontuan izanik.

b) Zergatik uste den ezbeharraren erreklamazio egileak azaldu duen moduan gertatu balitz haren ibilgailua mailatuago egongo litzatekeela eta beste ibilgailuaren kalteak handiagoak izango liratekeela.

c) Kexa dagokion txostenean instruktoreak istripuari buruz egin zuen irudikatze grafikoa zergatik ez datorren bat beste ibilgailuaren gidariak gertaerez egin zuen deskribapenarekin, deskribapen hori instrukzio-taldeak bere egin baitzuen istripuaren balizko kausaren hipotesia egiteko orduan, baina badirudi, ordea, antz handiagoa daukala erreklamazio egilearen bertsioarekin, nahiz eta haren bertsioa ez zen kontuan izan hipotesia formulatzerakoan.

d) Nola litekeen, egindako hipotesiaren arabera, talkak interesdunaren ibilgailuaren atzeko eta ezkerreko aldean kaltea egin zezakeen alde aurretik aurreko aldean marruskadura egin gabe. Izan ere, hipotesiaren logikan bazirudien zona hori izan behar zela beste ibilgailuaren aurka talka egin zuen lehenengoa.

e) Zeintzuk diren instrukzio-taldeak benetan kontuan izan zituen kalteak hipotesia sortzeko, baldin eta, dirudenez, txostenean deskribatutako kalteak ez badatoz bat erreklamazio egileak aurkeztutako argazkietan daudenekin eta azken horiek zalantzatan jarri ez badira.

Adierazi dugunez, udalak ez du kontu horietako bat ere argitu, nahiz eta erakunde honek berariaz eskatu dion.

Argipen eza, azaldutako arrazoiengatik eta orain aipatuko ditugun arrazoiengatik, ez dago justifikatuta, Arartekoaren iritzian. Horrek, beraz, beste zalantza bat sortzen du txostenaren zuzentasunari buruz, eztabaidatutako gaietan, eta zalantza hori interesdunak azaldutakoei (eta erakunde honen ustez funtsa dutenak) gehitu behar zaie.

6. Erakunde hau bat dator udalarekin gauza batean: kexaren xedea den txostena ez da ebazpen-egintza bat, ukitutako alderdiak behartzen dituena edo beste frogak batzuk aurkezteko eskubidea edo frogak aurkezteko beste instantzia batzuetara jo ahal izateko eskubidea mugatzen dituena.

Hain zuzen ere, kexaren sustatzaileak Arartekoarengana jo du bere eskubideak baliatzeko, Udaltzaingoa txostena berrikusteko eskaerari eman dion tratamendua ikusita.

Erakunde honen ustez, txostenak ebazpen-eraginik ez izateak, udalak adierazi duenez, ez du inola ere justifikatzen, ordea, erreklamazio egileak antolamendu juridikoak bere esku jartzen dituen tresnetako bat erabiltzeko aukera baliatzen





duenean, kasu honetan Arartekoaren aurrean kexa jartzea, argudio hori ematen jarraitzea udalak txostena ez berrikusteko hartu duen erabakia zurrizteko.

Betiere, errepikatu behar dugu, beraien ondorio juridikoak zeintzuk diren gorabehera, txostenak ahalik eta zehatzenak izan behar direla, jazotakoaren xehetasunak ahalik eta modu fidelenean eta xeheenean islatu behar dituztela, eta beraietan egiten den balorazioa behar adina justifikatu.

Gainera, txostenei balizko erantzukizunen froga gisa ematen zaien garrantzia nabarmendu behar da berriro ere, eta adierazi behar da inguruabar horrek eragina duela istripuan zerikusia duten alderdien interesetan.

Erakunde honen ustez, bestalde, txostena ebazpen-egintza bat ez izatea ez da garrantzitsua istripuaren balizko kausari buruz dokumentu horietan ezartzen den hipotesia arrazoitu beharri buruz egin diren gogoeten ikuspegitik.

7. Kezkagarria da Udaltzaingoak trafiko istripuei buruzko txostenak, azaldu diren irizpideekin, ez berrikusteko erabakia justifikatzea esanez ez dagoela poliziarik txostena egin duten poliziek baino irizpide hobekoekin, txostena berrikusi ahal izateko.

Arartekoaren ustez, poliziaren arduradunak edozein polizia-jarduketa ebaluatzeko moduan egon beharko liriateke. Hala adierazi zuen urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean: "Poliziaren jardura eta praktiketako berme sistemari buruzkoa", arestian aipatua. Hor, jarduketa horiek kontrolatzeko eta gainbegiratzeko mekanismoak ezarri beharra nabarmentzen da (II. atala).

Aipatutako gomendioa kontuan izanik, ez dugu ulertzen, era berean, udalaren informazioan aitortzen den arren txosten horiek egitean akatsak, ezadostasunak edo bestelako disfunkzioak gerta daitezkeela, udalak ez dituela ezartzen arazo horiek identifikatzeko eta zuzentzeko mekanismo egokiak.

8. Erakunde honen ustez, trafiko istripuei buruzko polizia-txostenak berrikustek berrikuspenera eskatu ez duten alderdiengan eragina izan ahal duelako inguruabarra txostenak berrikusteko prozeduran agerrarazi beharko litzateke eta prozedura horretan arreta egokia eman beharko litzaioke, baina ezin da eragozpen bat izan berrikuspenera egiteko, eta ezin du berrikuspenera oztopatu edo berrikuspenera ez egitea justifikatu.
9. Kexa dagokion istripuan esku hartu zuten agenteek argipenen txostenean egin zituzten adierazpenak ikusita, zehaztu behar da erreklamazio egileak auzitan jarri duena ez dela istripuaren hasierako txostenak gaizki jaso zituela bi gidariak eskainitako bertsioak, baizik eta instrukzio-taldeak istripuaren kausari buruz ezarri zuen hipotesia bera eta hipotesiaren oinarria izan zen kalteen deskribapena.

Zehaztu behar da, bestalde, interesdunak kexan ez zuela planteatu semaforoan bere aurretik zeuden ibilgailuek beste norabide bat hartu ahal izan zutela, istripuan





parte hartu zuen beste ibilgailua zegoenetik ezberdina, baizik eta jakintzat eman zuela ibilgailuak leku horretara joan zirela. Egitate horretatik abiatuta, erakunde honen ustez erreklamazio egileak benetan planteatu zuena izan zen beharrezkoa zela argitzea nola liteke ibilgailu horiek istripuan parte hartu zuen beste ibilgailua saihestea eta bereak, ordea, ibilgailu horren aurka jotzea, eta hori beste kontu bat da, zeharo ezberdina, eta Gasteizko Udalak ez dio erantzun.

10. Azaldu den guztian oinarrituta, Arartekoak uste du udalak kexaren xedea den txostena, eman diren irizpideekin, ez berrikusteko azaldu dituen arrazoiek, eta interesdunak berrikuspena egiteko eskaera egiteko aipatu dituen zantzuak ez argitzeko eman dituen arrazoiek ez dutela jokabide hori justifikatzen.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten diogu Gasteizko Udaltzaingoari, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

Kexaren xedea den txostena aipatutako irizpideen arabera berrikusteko, erreklamazio egileak txostenaren zuzentasunari buruz azaldu dizkion zalantza guztiak argitzeko eta, beharrezkoa bada, txosten horren edukia berrikuspenaren emaitzari egokitzeko.

